

Ekonomia pizteko kultur proposamenak 1. Igandetako matinalak

Zine proiektzioak Itsas Etxean igande goizetan, 11:00etan. Sarrera bakoitzeko 1 euroko deskontua Portuko tabernetan kontsumitzeko, zine-forum informalak egiteko.

Proiektzioak zikloka planteatzen dira, txandaka:

- a) Klasikoak zinefiloentzat, jatorrizko bertsiotan eta azpitoluekin.
- b) Euskarazko klasikoak.
- d) Musikalak eta musikari lotutakoak.
- e) Bestelakoak: familiarrak (euskaraz), komertzialak, umorezkoak, larunbatetakoak berriro...

2. Musika kalean

Herriko eragileek antolatuta ordutegi eta gune komertzialetan (Alde Zaharra eta Damarri, Portua, Kirol kaia, Sokoia, Puntala, Amute eta Mendelu), musikari lotutako hainbat jarduera planteatzen dira.

- a) Herriko musikari eta taldeen kontzertu lasaiak (dezibelioak jaitsita).
- b) Psilocybeko musikari eta taldeen entseguak jendaurrean.
- d) Baserritarren azoka dj-ekin girotu.
- e) 'Bermut musikalak'. Hilero bi larunbatetan Alde Zaharreko hiru ostalaritza guneetan (Arma Plaza, Apezkiku plaza eta Gipuzkoa plaza), aldibereko dj emanaldiak.
- f) Psilocybek antolatuta, bertako eta inguruko (Bidasoia, Oarso, Bortzirriak) musikari eta taldeekin bi eguneko jaialdi ibiltaria (taula txikiak herrian zehar: Amuten, Arma Plazan, Portuan eta Kirol kaian). Bestelako ekitaldiak gehitu daitezke: haurrentzako tailerrak, magia, kale antzerkia...

3. Zirko txikiak parkeetan

Zirkoari lotutako jarduerak: malabareak, herriko ipuin kontalariak... Ordutegi komertzialean (ostiral arratsaldean edo larunbat goizetan). Ez ohiko lekuak planteatzen dira: Amuteko haur parkea, Mendelukoa, Sokoakoa, Kandido Saseta plaza, Puntalekoa...

4. Baluarteke iluntzeak

Afalosteko emanaldiak (musika, dantza, antzerkia...) Erreginaren Baluartekean. Ondo aukeratutako emanaldiak izan behar dira eta aurretik lan tekniko bat beharrezkoa litzateke. Creacity programaren barruan kokatu daitezke.

5. Dantza plazara

Kemen Dantza Taldeak bertan behera utzi behar izan ditu Hondarribia Dantzan jardunaldiak. Hutsune hori nolabait konpentsatzeko ideia batzuk proposatzen dira:

- – Udaran zehar euskal dantza emanaldi bat antolatzea, Kemeneko dantzari eta musikariekin eta, ahal bada, beste talde baten parte hartzearekin. Ideia hau 'Baluarteke iluntzeak' programan txertatu daiteke.

- – Kemenek entseguren bat kalean egitea, 'Musika kalean' programan proposatzen diren entseguetako bat izan liteke.
- – Hondarribia Dantzanen egiten duen bezala, Kemenek plazako dantzen hiru eguneko ikastaroa antolatzea, baina Santiago plazan burutzea ikastaroa. Laugarren egunean, erromeria Santiago plazan, Kemeneko musikariek lagunduta.
- – Adaxka Eguna egiteko aukera aztertzea.

Horrez gain, Zumardikoak Kultur Elkarteari muxikoen aldizkotasuna bikoizteko aukera galdetzea proposatzen da. Baiezkotan, bigarren egun hori Damarri ez beste ostalaritza eremu batean proposatzen da Kirol kaia, Amute, Puntala, Kandido Saseta plazan...

6. Iluntasunetik argira

Konfinamenduaren bukaera kolore festa izatea proposatzen dugu, askatasun kontrolatu horren protagonistetako bat artea izatea. Horretarako hiru proposamen hauek egiten ditugu:

- – Konfinamenduan eginiko artelanen erakusketa/azoka handia. Herriko artistekin kontaktatu eta bakoitzari pieza bat edo bi pieza eskatu. Herriko hainbat guneetan egin daitezke erakusketak, edota azoka antzerako bat antolatu.
- – Artista ezagun bati eskatzea Portuko pareta zuri bat margotzeko. Artistak ordutegi komertzialean egingo luke lan, herriko artisten laguntzarekin.
- – Udal aurrekontuan onartutako Mendeluko murala proiektuaren parte hartze prozesua lehenbailehen martxan jartzea, murala udaran zehar margotu ahal izateko.

7. Ondarea gazteen begietatik

Arma Plaza Fundazioak 'Ezagutu Zure Hiria' programaren antzerako zerbait antolatzea proposatzen da, baina gazteak protagonista izanda. Herriko historia, arkitektura, arkeologia, biologia, arte- ederrak... lizentziatu gazteen hitzaldiak edo bisita gidatuak, euskaraz beti. Ezohiko formulak aztertu daitezke: hitzaldia eta pintxo-potea uztartu, edo bisita gidatua eta bertso-kalejira bateratu.